


eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

**Literatur itzulpena: Daniel
Handlerren *The Grim Grotto* gazte-
literaturako eleberriaren
euskararako itzulpena**

Egilea: Jon Alonso Abajo

Itzulpengintza eta interpretazioko gradua

2016/17 ikasturtea

Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak saila

Tutorea: Isabel Etxeberria Ramírez

LANAREN LABURPENA

Itzulpen-lan honek bi ardatz nagusi ditu: lehenik eta behin, Daniel Handler izeneko autore kaliforniarrek ingelesez idatzitako gazte-literaturako eleberri baten pasarte bat euskarara itzultzea izango da gure lehendabiziko helburua; bigarren ardatza, aldiz, pasarte horren itzulpen-prozesua bera xehe-xehe aztertzea izango da, eta, batez ere, itzulpenean zehar izandako arazo nagusiei aurre egiteko erabili diren konponbideei eta estrategiei buruzko informazio zehatza emango da. Modu horretan, eta kontuan izanda hautatutako pasarteak itzulpenari begira arazoak sor ditzaketen hainbat alderdi linguistiko biltzen dituela (besteak beste, hitz jokoak, sintaxi korapilatsua, itzuli beharreko antroponimo eta toponimo bereziak...), itzulpen efiziente eta egoki bat egiten saiatuko gara itzulpen-prozesu osoan zehar, aipatutako arazoei konponbidea emateko estrategia ugariak eta egokiak biltzen dituen.

Gauzak horrela, gure itzulpen-lanak honako egitura hau izango du aurretik aditzera emandako bi helburuak betetzeko: sarrera batekin emango diogu hasiera gure lanari, eta, ondoren, autoreari eta eleberriari buruzko daturik esanguratsuenak emateari ekingo diogu. Lehenengo eta behin, autorearen bizitzari eta berak idatzitako lanei buruzko informazioa emango dugu; bigarrenik, eleberriari helduko diogu, eta, besteak beste, argumentu orokorraz eta autorearen estiloaz arituko gara.

Lanaren hirugarren pausoa pasartearen euskararako itzulpena eskaintzea izango da, bai eta itzulpena egiteko erabili ditugun baliabideen zerrenda laburra ere. Hurrengo puntuan itzulpen-prozesuari helduko diogu. Hain zuzen ere, lexikoa eta morfosintaxia izango dira bereziki aztertuko ditugun bi aspektuak, eta lexikoaren barruan, hona hemen landuko diren arazoak eta arazo horiei emandako konponbideak: onomastikaren itzulpena (antroponimo eta toponimo deskriptiboen itzulpena, zehatzago izateko), kultur erreferentzien itzulpena, pasartearen zehar presente dagoen hitz joko fonetikoei lotutako kasu berezi bat eta jatorrizko testuan erabiltzen diren esaera zein irain berezi baten itzulpen-prozesua. Morfosintaxiari dagokion atalaren barruan, aldiz, sintaxi korapilatsua eta esaldien naturaltasuna izango ditugu aztergai. Aipatzekoa da hainbat adituren lanetan oinarritu garela itzulpen-prozesuaren azterketa sakon hori lantzeko.

Bukatzeko, lan honetatik atera ditugun ondorio nagusiez arituko gara, eta bukaeran lana aurrera eramateko erabili ditugun erreferentzia bibliografikoak aurkeztuko ditugu.

Kontuan hartzekoa da itzuli dugun pasartearen jatorrizko bertsioa gehitu dugula eranskin gisa lan honen bukaeran.

EDUKIEN AURKIBIDEA

1. SARRERA	5
2. JATORRIZKOARI BURUZKO DATU BATZUK	6
2.1 Autoreari buruz	6
2.2 <i>A Series Of Unfortunate Events</i> si buruz	7
3. XEDE TESTUA	9
3.1 Itzulpena.....	9
3.2 Erabilitako baliabideen zerrenda.....	14
3.2.1 Hiztegi elebidunak: Elhuyar, Morris Student Plus, Oxford Dictionaries, WordReference, Zehazki eta 5000 Adorez	15
3.2.2 Hiztegi elebakarrak: Hiztegi Batua eta Dictionary.com	15
3.2.3 Corpusak: Egungo Testuen Corpora.....	15
3.2.4 EIMAre estilo-liburuak.....	16
3.2.5 Wikipedia.....	16
4. ITZULPEN PROZESUAREN AZTERKETA	17
4.1 Lexikoa.....	17
4.1.1 Onomastikaren itzulpena	17
4.1.1.1 Antroponimoak: Esmé Squalor, Carmelita Spats eta Captain Widdershins	18
4.1.1.2 Toponimoak: Mortmain Mountains-en kasua.....	21
4.1.1.3 Elkarteen izenak: V.F.D.ren kasu berezia	22
4.1.2 Erreferentzia kulturalen itzulpena.....	24
4.1.2.1 Prufrock Preparatory School	24
4.1.2.2 Snow Scouts	26
4.1.3 Hitz joko fonetikoaren itzulpena: interjekzioen egokitzapena.....	27
4.1.4 Bi kasu berezi: «how in» eta «cakesniffer»en itzulpenak.....	27
4.2 Morfosintaxia	28
4.2.1 Sintaxi korapilatsuaren itzulpena.....	28
4.2.2 Esaldien naturaltasuna	30
5. ONDORIOAK	31
6. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK	32
7. ERANSKINA: JATORRIZKO TESTUA	35

TAULEN AURKIBIDEA

Taula 1: <i>Squalor abizenaren itzulpena</i>	19
Taula 2: <i>Carmelita Spatsen itzulpenak</i>	20
Taula 3: <i>Captain Widdershinsen itzulpenak</i>	21
Taula 4: <i>Mortmain Mountainsen itzulpenak</i>	22
Taula 5: <i>V.F.D.ren itzulpenak</i>	23
Taula 6: <i>V.F.D.ren euskararako itzulpenak</i>	24
Taula 7: <i>Prufrock Preparatory Schoolen itzulpenak</i>	25
Taula 8: <i>Snow Scoutsen itzulpenak</i>	26
Taula 9: <i>Murritzeten adibidea</i>	29
Taula 10: <i>Erlatiboeko perpausen ezabaketaren adibidea</i>	29
Taula 11: <i>Nominalizazioen ezabaketaren adibidea</i>	29
Taula 12: <i>Esaldien egokitzapenen adibidea</i>	30

1. SARRERA

Itzulpen-lan honetarako aukeratu dugun eleberriak *The Grim Grotto* du izena, eta, zehatzago izateko, eleberriaren bederatzigarren atalaren pasarte bat aukeratu dugu itzulpena egiteko. Liburua Daniel Handler izeneko idazle estatubatuarrek sortutako *A Series of Unfortunate Events* sail famatuaren liburuetako bati dagokio. Izan ere, hamahiru liburuk osatzen dute sail hori, eta *The Grim Grotto* hamaikagarrena da.

The Grim Grotto itzulpen-lan honetarako hautatu izanaren arrazoi bat eleberriaren beraren erakargarritasuna da, irakurle gazteari oso gertu egiten baitzaio dibertigarria eta barregarria delako, bai eta hizkera informala nagusi delako ere. Hala ere, aipatzekoa da pasarteak aukeratu izanaren bigarren arrazoi bat dagoela: euskararako itzulpen-prozesuari begira arazoak eman ditzaketen hainbat aspektu biltzen dituelako, bai lexikoaren aldetik, bai morfosintaxiaren aldetik (adibidez, hitz jokoak, izen bereziak, autorearen estilo bitxia...). Arazo horiei guztiei aurre egiteko, itzulpen-estrategia egokiak erabili beharko ditugu, eta, horrela, aipatutako aspektuak egokitzeko hainbat konponbide egoki aurkitzea, erabiltzea eta proposatzea espero dugu.

2. JATORRIZKOARI BURUZKO DATU BATZUK

2.1 AUTOREARI BURUZ

Daniel Handler 1970eko otsailaren 28an jaio zen San Frantziskon, Kalifornian. Idazteaz gain, aipatzekoa da musikaren eta zinemaren munduan ere lan egin duela. Musikari gisa, *The Magnetic Fields* eta *The Gothic Archies* bandetan aritu zen unibertsitate-ikasketak amaitutakoan akordeoia jotzen. Horrez gain, *Rick*, *Kill the Poor* eta beste zenbait filmetarako gidoiak idatzi ditu, eta, horri gehituta, film kritikari gisa egin du lan. Egun, bere sailean oinarritutako *Lemony Snicket's A Series Of Unfortunate Events* telesailaren bigarren denboraldiaren gidoia idazten dihardu.

Alabaina, Handler bereziki literatur idazle gisa ezaguna zaigu. Izugarritzko paperjalea izan zen txikitatik, eta ikaragarri gustatzen zitzaion genero beltza, bereziki istorio ilunak eta amaiera tristeak zeuzkaten liburuak, adibidez, Edward Gorey eta horrelako idazleen eleberriak (Encyclopedia of World Biography, 2017). Hala ere, kaliforniar gaztea ez zen genero beltza lantzen hasi idazketaren munduan murgildu zenean. Poesia idazten hasi zen, eta, handik aurrera, genero beltzeko eleberriak idazteari ekin zion. Beranduago, New Yorkera mugitu zen idazle autonomo nahiz film kritikari gisa lan egitera.

Handlerrek gazteentzako nahiz helduentzako eleberriak idatzi ditu. Helduentzako literatur obren artean, *The Basic Eight* (1999), *Why We Broke Up* (2011) eta *We Are Pirates* (2015) dira aipatzekoak, eta gazteentzako literaturan idatzi duen lanik ezagunena aztergai dugun *A Series Of Unfortunate Events* saila da.

Handlerrek idatzitako gazteentzako eleberrietan Lemony Snicket delako baten izena agertzen da autore gisa, eta horrek agerian uzten du idazleak izengoiti bat erabiltzea erabaki zuela bere lan batzuetan. Pires Dos Barrosek (2006) *Imaginaria* aldizkarian adierazi zuenez, autoreak izengoiti hori erabili zuen bere lehenengo eleberria, *The Basic Eight*, idazten hasi zenean. Izan ere, kaliforniarra eskuin muturreko hainbat mugimendu ikertzen ari zen eleberria idaztean, eta Lemony Snicket izengoitia erabili zuen mugimendu horren taldeek benetako idazlea nor zen jakin ez zezaten. Horrez gain, idazleak izengoiti hori bere gazte-literaturako eleberrietan erabiltzen jarraitu zuen irakurleek harekin harremanetan jartzea ekiditeko (Encyclopedia of World Biography, 2017). Hortaz, *A Series Of Unfortunate Events* osatzen duten hamahiru liburuetan Lemony Snicket agertzen zaigu autore gisa. Halaber, Handlerrek bere eleberri

batzuetako pertsonaia bihurtu zuen Lemony Snicket. Izan ere, eta Catherine Malletten hitzetan, «Handler, aldi berean, Snicket izeneko fikziozko pertsonaia, Snicket izeneko fikziozko pertsonaia baten ordezkaria eta arrakasta handiko liburuen idazlea da»¹ (Encyclopedia of World Biography, 2017).

Idazteko moduari dagokionez, Handlerrek genero beltza eta gai ilunak landu ditu bere eleberrietan. Gai horien artean aipatzekoak dira heriotza, beldurra eta pairamena, eta espresuki horrelako gai ilunak landu dituzenez, arazo handiak izan ditu eleberri batzuk plazaratzeko, adibidez, *The Basic Eight* (Wikipedia, 2017).

2.2 A SERIES OF UNFORTUNATE EVENTS I BURUZ

A Series Of Unfortunate Events Handlerrek landu duen gazte- eta haur-literaturako sailik ezagunena da. Sailaren lehenengo liburua, *The Bad Beginning*, 1999an argitaratu zuen HarperCollins argitaletxeak, eta azkena, *The End*, 2006an plazaratu zen. Bere arrakastaren eraginez, saila beste hainbat hizkuntzatarara itzuli da, besteak beste, frantsesera (*Les Désastreuses Aventures des orphelins Baudelaire*), alemanera (*Eine Reihe betrüblicher Ereignisse*), italierara (*Una serie di sfortunati eventi*) eta baita gaztelaniara ere (*Una serie de catastróficas desdichas*² Espainian eta *Una serie de eventos desafortunados* Hego Ameriketara).

Handlerrek Violet, Klaus eta Sunny Baudelaire umezurtzen istorioa eta abentura tragikoak kontatzen dizkigu sailean zehar. Gurasoak euren etxea suntsitu duen sute batean zendu eta gero, umezurtzak Olaf Konde maltzuraren ardurapean geratzen dira, zeina gurasoek umezurtzei utzitako izugarritzko ondarearen atzetik dabilen. Liburu bakoitzean, umezurtzak Olaf Kondearen eta bere laguntzaileen atzaparretatik ihesi dabilta, beren gurasoen heriotzari lotutako hainbat pista eta elkarte misteriotsu bat deskubritzen duten bitartean. Lemony Snicket (bai autore gisa, bai pertsonaia gisa) Baudelairetarren abentura beldurgarrien narratzaile orojakilea da.

¹ Handler is an author who is simultaneously a fictional character named Snicket, a representative of a fictional character named Snicket, and a best-selling writer.

² Saila osatzen duten lehenengo zortzi liburuak bakar-bakarrik itzuli dira gaztelaniara. Hurrengo bost eleberriak ez dira itzuli, eta, egun, sailaren jarraitzaileek egindako itzulpen ez ofizialak soilik aurki daitezke sarean.

Generoari begira, Handlerrek genero beltza landu zuen istorioa idaztean. Horrenbestez, eta kontuan hartuta eleberriak gazteei zuzenduta daudela, autoreak beti jakinarazten die irakurleei Baudelairetarren istorioa nahiko tristea eta iluna dela, eta, hortaz, hobe dutela beste zerbait irakurri esperientzia txarra bizitzeko prest ez badaude (irakurleen interesa pizteko estrategia). Lehenengo eleberriaren hasiera-hasieran, adibidez, Snicketek honako abisu hau ematen du:

«Amaiera politik dituzten istorioak interesatzen bazaizkizue, hobe duzue beste liburu bat irakurri. Izan ere, liburu honetan amaiera politik ez aurkitzeaz gain, ez duzue hasiera polita aurkituko, eta, erdian, oso kontu polit gutxirekin egingo duzue topo³» (Handler 1999: 1).

Bestalde, eleberrietan erabilitako idazkera motak erakusten digu Handlerrek genero beltza gustuko zuten irakurleak izan zituela buruan. Izan ere, oso ezaugarri desatseginak bildu zituen sailaren barruan, besteak beste, erailketak, bahitzeak eta sekula konponduko edo deskubrituko ez diren misterioak, baina oso ondo moldatu zituen gazteei egoera horiek guztiak azaltzeko modua idaztean, kasu gehienetan azalpen, adibide eta konparaketa bitxiak gehituz.

Handler, baina, ez zen azalpen eta konparaketa horiez guztiez baliatu soilik horrelako egoerak ulertarazteko, baizik eta irakurle gazteek termino ezezagunagoak uler zitzaten. Aipatzekoa da azalpen horiek nahiko barregarriak direla, eta horrek erakusten digu autoreak umorea eta misterioa konbinatu zituela.

³ If you are interested in stories with happy endings, you would be better off with another book. In this book, not only is there no happy ending, there is no happy beginning, and very few happy things in the middle.

3. XEDE TESTUA

3.1 ITZULPENA

Zorigaiztoko gertakari-segidak

11 – Leize laiotza

Bederatzigarren atala (201 – 211 orr.)

[...]

Ezpatarekin keinu bat eginez, izkina batetik gela erraldoi batera eraman zituen umeak, hots, *Queequega* toki beldurgarri horretara erori zenean doi-doi ikusi izan zuten gelara. Nahiko iluna zen, eta kriseilu gutxi batzuei esker argitzen zen soilik, zeinak gelan zehar sakabanatutako zutoi luze batzuen goiko aldeetan zintzilikaturik zeuden. Alabaina, Violetek eta Klausek deserosoak ziruditen bi egurrezko jesarleku luze ikus zitzaketen, eta bertan ume batzuk zeuden jesarrita, arraun luze batzuekin azkar-azkar abantean. Arraun horiek gela osoa zeharkatzen zuten eta hormetara baino haratago ere iristen ziren, umeek metalezko zulo batzuetatik lerrarazten baitzituzten olagarroaren garroak kontrolatzeko. Baudelairetar helduek Mortmain Mendietan topatutako Elur Scout batzuk ezagutu zituzten ume horien artean, eta batzuek Prufrock Institutu Pribatuko gainerako ikasleen antza ia bera zeukaten, non neba-arrebek Karmentxu Azpantar lehen aldiz ezagutu baitzuten. Hala ere, beste ume batzuekin ez zuten traturik izan, eta adierazpide horrek esan nahi du Olaf Kondeak edo bere laguntzaileek ziurrenik beste momenturen batean bahitutako umeak zirela. Umeek oso nazkatuta, nahiko gose eta izugarri aspertuta ziruditen metalezko arraunekin jo eta ke zebiltzan bitartean. Beste olagarro bat omen zegoen gelaren erdi-erdian, baina olagarri hori oihal irristakorrez eginda zegoen. Olagarroaren sei garro gorputzaren albo bakoitzean zintzilikatuta zeuden eta motel-motel mugitzen ziren, baina beste biak airean astintzen ziren, eta horietako batek fideo luze eta heze bat zirudien zerbait zeraman helduta.

—Egizue arraun azkarrago, umegorri ergel horiek! —oihukatu zuen olagarroak, ahots ezagun eta maltzur bat erabiliz—. Atarramendu Hotelera bueltatu behar dugu osteguna baino lehen, eta astelehena da jada! Ez baduzue azkarrago lan egiten,

tagliatelle grande honekin joko zaituztet, eta zin dagizuet, fideo-zati luze batekin kolpe bat jasotzea esperientzia desatsegina eta nahiko likatsua da! Kar-kar azkar!

—Kor-kor bizkor! —esan zuen Olafek ados zegoela erakutsiz, eta olagarroak buelta eman zuen.

—Laztana! —oihukatu zuen, eta neba-arrebak ez ziren harritu olagarroa Esmé Zekenkeria zela ikustean, Olaf Kondearen neskalagun doilorra, bere beste jantzi absurdo eta modernoetako batean. Neskalagun maltzurak itsaspekoaren uniformeetako oihal irristakorra erabili zuen olagarro-mozorro bat eratzeko. Jantziak plastikozko bi begi handi, beste sei mahuka eta boten alde guztietan itsatsitako bentosak zituen, benetako olagarroek garroetan dituztenak bezala, mugitzen lagun diezaieten. Esmé pauso itsaskor batzuk eman zituen Olafengana hurbiltzeko eta, gero, umeak miatu zituen jantziaren txano irristakorraren azpitik.

—*Baudelairetarrek* al dira hauek? —galdetu zuen txundituta—. Baina hori ezinezkoa da! Hilda zeudela ospatu dugu jada!

—Biziraun egin zuten azkenean —esan zuen Olaf Kondeak—. Hala ere, euren zorteak ez du askorik iraungo. Ziegara eramango ditut!

—Haurtxo nazkagarria hazi egin da —esan zuen Esmék, Fionari hurbiletik begiratuz—, baina beti bezain itsusia da.

—Ez, ez —esan zuen Olafek—. Umetxo hori kasko horren barruan dago, ez tul eta ez tul. Hau Fiona da, Kontranorabide kapitainaren ugazalaba. Kapitainak abandonatu egin du!

—Nola, abandonatu egin duela? —errepikatu zuen Esmék—. Hori bai *in!* Hori bai modernoa! Hori bai liluragarria! Barre egin dezagun gure era berrian hori ospatzeko! Kur-kur kukurruku!

—Kir-kor zikinkor! —esan zuen Olafek barre-algaraka—. Bizitza hobetuz doa!

—Ker-kir ankerki! —oihukatu zuen Esmék—. Arrakasta kale kantoian dugu!

—Kar-kor Mari Anton! —esan zuen Olafek—. S.A.B. errauts bihurtu egingo dugu!

—Kir-kur kizkur! —deiadar egin zuen Esmék—. Izugarri aberastuko gara!

—Kar-ker xakel! —esan zuen Olafek oihuka—. Mundu osoak itsaspeko mundial honen izena gogoratuko du betiko!

—Eta zein da itsaspekoaren izena? —galdetu zuen Fionak, eta Baudelairetarrek izugarri lasaitu ziren, gaizkileek era asaldagarri horretan barre egiteari uko egin baitzioten. Olafek mikologoari begiratu zion, eta, gero, lurrera jaitsi zuen begirada.

—*Karmentxu* deitzen da —aitortu zuen isilka-misilka—. *Olaf* deitu nahi nion, baina norbaitek izena aldarazi zidan.

—*Olaf* opil-jaleen izena delako! —esan zuen neba-arrebek sekula bizian ez entzutea espero izan zuten ahots zakar batek, eta, tamalez, aitortu behar dut *Karmentxu* Azpantar sartu zela gelara momentu hartan, Baudelairetarrei begiratzen zien bitartean. *Karmentxu* gainerako pertsona guztiak baino ederragoa eta azkarragoa zela uste zuen ume desatsegina izan zen beti, eta Violetek eta Klausek berehala ikusi zuten ume askoz mainatuago bihurtu zela Olafen eta Esméren ardurapean. Esmé Zekenkeriarena baino jantzi ia absurdoago bat zeraman, hainbat arrosa-eskualdi zituena. Hain ziren distiratsuak arrosa-eskualdi horiek, ezen Violetek eta Klausek begiak ia guztiz itxi behar baitzituzten *Karmentxu* ikusi ahal izateko. Tutu zabal eta parpailadun bat zeraman gerrikoan, hau da, baletoko ikuskizunetan eramaten den gona, eta buruan koroa arrosa eta erraldoi bat zeraman, hainbat xingola arrosa zein distiratsuz eta hainbat lore arrosa zein ilunez apaindutakoa. Bi hego arrosa zituen bizkarrean itsatsita, bi bihotz arrosa margotuta zeramatzan masailetan eta bi zapata arrosa eta ezberdin jantzi zituen oin bakoitzean. Zapata horiek, gainera, soinu oso desatseginak egiten zituzten *Karmentxu* ibili ahala. Medikuek erabiltzen duten bezalako estetoskopio bat zeraman lepoaren inguruan, alde guztietan astaputz arrosez beteta zegoena, eta makila luze eta arrosa bat zeukan esku batean helduta, puntan izar arrosa eta distiratsu bat zuena.

—Ez begiratu nire jantziari! —esan zien Baudelairetarrei mesprexuz—. Jeloskor samar zaudete klake dantzari maitagarri printzesa albatari bat naizelako!

—Jantzia zoragarria da, laztana —esan zion Esmék eztiki, neskari koroan kolpetxo batzuk ematen zizkion bitartean —, ezta, Olaf?

—Bai, bai —esan zuen Olafek marmarka—. Ezkertuko nizuke nire kutxako mozorroak erabiltzeko baimena eskatuko bazenit ezer hartu baino lehen.

—Baina kondetxo, zure mozorroak behar nituen —esan zuen Karmentxuk negar zotinka, purpurina arrosaz margotutako betileak kliskatuz—. Klake dantzari maitagarri printzesa albaitari baten dantza-saio berezirako jantzi berezi bat behar nuen.

Euren arraunetatik begirada aldendu gabe, hainbat ume arrangurutzen hasi ziren.

—Ez, mesedez! —oihukatu zuen Elur Scoutsetako batek—. Bere dantza-saioek gehiegi irauten dute!

—Erruki zaitezte gutaz! —esan zuen beste ume batek ozen.

—Karmentxu Azpantar unibertso osoko dantzaririk adituena da! —deiar egin zuen Esmék, arraunlarien buruak fideoarekin jotzen zituen bitartean—. Eskertu beharko zenukete berak dantza-saio bat egitea zuentzat, umegorri horiek! Horrek arraun eginaraziko dizue!

—Ugh —esan zuen Sunnyk kaskoaren barrutik, Karmentxuren dantza-saioa imajinatzeak are gehiago gaixotuko balu bezala. Baudelairetar helduenek elkarri begiratu zioten eta Sunnyri laguntzeko modu bati buruz pentsatzen saiatu ziren.

—*Queequegan* kapa arrosa bat daukagula uste dut —esan zuen Klausek azkar-azkar—. Oso ondo emango lioke Karmentxuri. Itsaspekora noa, ea...

—Ez ditut zure jantziak nahi, opil-jale hori —esan zuen Karmentxuk mespretxuz—. Klake dantzari maitagarri printzesa albaitari batek ez ditu bigarren eskuko jantziak eramaten.

—Eder-ederra da —xaramelatu zuen Esmék—. Inoiz izan dudan ume adoptatua da... zuek Baudelairetarrok kontuan hartzen ez bazaituztegu, jakina, baina ez zintuztedan askorik atsegin.

—Ni ikusten geratuko zara, kondetxo? —galdetu zuen Karmentxuk—. Dantza-saio hau mundu osoko dantza-saiorik bereziena izango da!

—Lan handia dugu —esan zuen Olaf Kondeak bizkor—. Ziegara eraman behar ditut haurrak, ea nire laguntzaileak azukre-ontzia non dagoen esatera behartzen dituen.

—Azukre-ontzi hori ni baino askoz gehiago maite duzue —esan zuen Karmentxuk haserre.

—Ezta pentsatu ere, laztana —esan zuen Esmék—. Olaf, esaiozu ez zaizula azukre-ontzia batere inporta eta gure bizitzako aingerutxo maitagarria dela!

—Aingerutxo bat zara, Karmentxu —esan zuen Olafek, eta, bultzada batekin, gela erraldoi hartatik atera zituen haurrak —. Gero arte.

—Esaiozu Kizkitxori izugarri maltzur jokatzeko umegorri horiekin —oihu egin zuen Esmék, eta *tagliatelle grandea* astindu zuen haren olagarro-buru faltsuaren gainetik—. Eta orain... has dadila ikuskizuna!

Eta Karmentxuk arraunlarien aurrean biraoak eta oinekin kolpetxoak ematen zituen bitartean, Olaf Kondeak gelatik atera zituen umeak. Baudelairetar helduek ia-ia eskertu zuten ziegara joatea klake dantzari maitagarri printzesa albaitari baten dantza-saioa ikusteko agindua jasotzearen aldean. Olafek bazter guztietan biratzen zen beste pasillo batetik eraman zituen umeak, zeina ezkerrean eta eskuinera kurbatzen zen, olagarro metalikoak irentsitako suge bat izango balitz bezala. Azkenean, eskutokiaren ordeaz begi metaliko bat zeukan ate txiki batera ailegatu ziren.

—Ziegan gaude! —esan zuen Olafek ozenki—. Ker-ker ergel!

Sunnyk eztul egin zuen berriro kaskoaren barruan, baina eztul hori aurrekoa baino ozenagoa eta gogorragoa izan zen. Argi zegoen Marmoka-Mizelioa era beldurgarrian garatzen jarraitzen ari zela, eta, berriro ere, Violet gaizkilea konbentzitzen saiatu zen, Sunnyri laguntzen utz ziezaien.

—Utziguzu *Queequegera* bueltatzen, mesedez —esan zuen—. Eztulka dabil, ez diozu entzun?

—Jakina —esan zuen Olafek—, baina niri bost.

—*Mesedez!* —oihukatu zuen Klausek—. Hil edo biziko kontua da!

—Bada, bai —burla egin zuen Olafek, krisketa biratuz—. Nire laguntzaileak azukre-ontzia non dagoen esatera behartuko zaituzte. Horretarako laurdenkatu behar bazaituzte, hala izan bedi.

—Entzun nire lagunei! —esan zuen Fionak—. Bai! Egoera hau ikaragarria da!

—A bai? Ba nik ezetz esango nuke —esan zuen Olafek irribarre maltzur batekin, eta atea ireki zuenean, gela txiki eta huts bat ikusi zuten. Ez zegoen ezer barruan, bakarrik aulkitxo bat, eta bertan gizon bat zegoen jesarrita, zailtasunez karta batzuk nahasten zebilena.

—Familiarekin elkartzea ez da egoera ikaragarria! —esan zuen Olafek. Gelara bultzatu zituen umeak eta atea itxi zuen.

Violetek eta Klausek Olafen laguntzaileari aurpegira begiratu zioten, eta kaskoa biratu zuten Sunnyk ere aurpegira begira ziezaion. Neba-arrebak ez ziren batere harritu kartak nahasten zebilena kizkidun gizona zela deskubritzean, jakina, eta ez ziren bera ikusteaz batere poztu, eta beldurtu ziren ziegan egoteak Sunny kaskoaren barruan garatzen ari ziren onddoetatik salbatzea eragotziko ziela pentsatzean. Hala ere, eta Fionari begiratu ziotenean, mikologoa ziegan nor zegoen deskubritzean nahiko harrituta zegoela eta aulkitxotik altxatu eta emozioaren emozioaz kizkiak mugitzen hasi zen gizona ikustean nahiko pozik zegoela ikusi zuten.

—Fiona! —esan zuen kizkidun gizonak ozenki.

—Fernald! —esan zuen Fionak, eta bazirudien Sunny salbatzea lortuko zutela azken batean.

[...]

3.2 ERABILITAKO BALIABIDEEN ZERRENDA

Hona hemen itzulpen-prozesuan zehar erabilitako baliabideen zerrenda:

3.2.1 Hiztegi elebidunak: Elhuyar, Morris Student Plus, Oxford Dictionaries, WordReference, Zehazki eta 5000 Adorez

Elhuyar eta Morris Student Plus hiztegiak erabili dira hitz ezezagunenak ingelesetik euskarara zuzenean itzultzeko.

Kasu batzuetan gaztelania ere erabili dugu zubi-hizkuntza gisa, bereziki pasartean nagusi den hizkera informalaren barruko hitzen itzulpen zehatza bilatzeko («marshmallow», «hand-me-downs»...). Beraz, pasarteko hitz horiek ingelesetik gaztelaniara itzuli (Oxford Dictionaries eta WordReference erabiliz) eta gaztelaniatik euskarara itzuli dira (kasu horretan, 5000 Adorez, Elhuyar eta Zehazkiren bidez).

WordReference baliagarri suertatu zaigu jatorrizkoaren zenbait esapideren itzulpena identifikatzeko, eta gaztelania zubi-hizkuntza erabiliz, 5000 Adorez, Zehazki eta Elhuyar hiztegiak erabili ditugu esapide horien euskararako itzulpenen proposamenak topatzeko, adibidez, «around the corner» edo «a matter of life and death».

3.2.2 Hiztegi elebakarrak: Hiztegi Batua eta Dictionary.com

Pasarteko hitz gehienek itzulpenak hiztegi elebidunetan aurkitu dira, eta, beraz, ingelesezko hiztegi elebakarrak ez dira beharrezkoak izan. Hala ere, Hiztegi Batua erabili behar izan dugu hiztegi elebidun batzuek proposatutako itzulpenak onartuta dauden ala ez ziurtatzeko. Hura izan da, adibidez, «abant egin» eta «adoptatu» hitzen kasua.

Dictionary.com-i esker, hitz zehatz baten esanahia «deskodetu» dugu: «medusoid». Baliabide horri esker, «medusoid» adjektiboak «marmokei lotuta» esan nahi duela deskubritu dugu, eta autoreak erabiltzen duen Medusoid Mycelium izeneko onddoa Marmoka-Mizeliora euskaratzen lagundu digu.

3.2.3 Corpusak: Egungo Testuen Corpora

Egungo Testuen Corpora ere baliabide oso garrantzitsua izan da hiztegiek proposatutako hitzak eta batez ere esapideak beste euskarazko lan batzuetan noizbait erabili diren ala ez ziurtatzeko.

3.2.4 EIMAren estilo-liburuak

EIMAren *Ortotipografia* estilo-liburua erabili dugu ortotipografiari lotutako zalantzak argitzeko, adibidez, gidoiaren erabilera elkarrizketetan, letra etzanaren erabilera ontzien izen bereziak idaztean edo letra etzanaren erabilera hitz batzuk ohartukiago adierazteko, jatorrizkoan egiten den bezala. Gramatika-zalantzei dagokienez, *Morfosintaxiaren inguruko zalantzak eta argibideak* lagungarri suertatu zaigu zalantza zehatz bat argitzeko, hots, ea soziatiboa edo instrumentala erabili behar den jatorrizkoan «with» preposizioa erabiltzen denean (kasu konkretu honetan, «ezpataz» edo «ezpatarekin» erabiltzea «gesturing with his sword» itzultzeko).

3.2.5 Wikipedia

Kasu oso konkretu batean, Wikipedia ere erabili dugu Esmé Squalor pertsonaia eratzeko Handlerrek erabili zuen strategiaren inguruko informazioa biltzeko («Onomastikaren itzulpena» atalean zehaztuko dugu xehetasun hori).

4. ITZULPEN PROZESUAREN AZTERKETA

Itzulpen-prozesuaren azterketarekin hasi aurretik, aipatu beharra dago *The Grim Grotto*ren pasartea itzultzea ez dela, inondik inora, umeen jolasa izan. Izan ere, eta Álvarez-ek dioenez (1995), itzultzaile batek baino gehiagok defendatzen du literatur itzulpenaren benetako zailtasuna hitzetan dagoela, edo, hobe esanda, hitzen eta esaldien esanahia deskodetzeari dagokion prozesuan, baina benetako erronka testuinguru kulturean dago; beste modu batean esanda, itzultzaileak nolabait egokitzaileren funtzioa bete behar du prozesuan zehar, eta jatorrizkoaren elementu guztiak irakurleen (kasu honetan, gazteen) eta xede-hizkuntzaren ezaugarrietara egokitu behar ditu.

Hein handi batean, hori izan da pasartea itzultzean egindako lana eta prozesuaren erronkarik handiena. Aurretik aipatu helburuak betetzeko, hots, pasartearen elementuak euskarara egokitzeko, hitzez hitzeko itzulpena guztiz baztertu da, eta era nahiko librean jokatu da testuaren aspektu linguistikoak (sintaxia, lexikoa, ortotipografia...) euskarara ahalik eta ondoen transmititzeko.

Prozesu osoa hobeto uler dezagun, itzulpen-prozesua analizatuko dugu xehetasunez, eta bi izango dira aztergai izango ditugun alderdiak: lexikoa eta morfosintaxia.

4.1 LEXIKOA

4.1.1 Onomastikaren itzulpena

Onomastika hautatutako pasartean eta sail osoan orokorrean oso presente dagoen elementua da, baina, itzulpenari begira, sailaren alderdirik arazotsuena da. Hortaz, lan handia egin behar izan da testuko izen berezi guztiak itzultzeko estrategia egokiak aurkitzeko, eta behin baino gehiagotan, gaztelaniara, alemanera, frantsesera eta italierara egindako itzulpen ofizialak⁴ erabili dira lagungarri gisa.

Kasu zehatz honetan, arazoak eman dituzten onomastikaren barruko bi alderdi nagusi aztertuko ditugu: antroponimoak eta toponimoak.

⁴ Aztertuko ditugun antroponimo eta toponimo guztien gaztelaniarako, frantseserako, alemanerako eta italierarako itzulpenak aztertzeko, saileko *The Austere Academy* eta *The Grim Grotto* liburuen lehenengo atalen itzulpen ofizialak erabili ditugu.

4.1.1.1 *Antroponimoak: Esmé Squalor, Carmelita Spats eta Captain Widdershins*

Lehenengo eta behin, jakin beharra dago Nord-ek (2003) bi mailatan bereizten dituela gazte-literaturan erabiltzen diren antroponimoak: errealak izan daitezke (hau da, benetako pertsonaien edo pertsonaia historikoen izenak), baina baita fikziozkoak ere, eta zenbait kasutan, autoreek fikziozko antroponimo horiek erabil ditzakete pertsonaiei lotutako ezaugarriren bat adierazteko, adibidez, gizarte-klasea edo izaera. Azken antroponimo mota horiek «antroponimo deskriptibo» terminoaz ezagunak dira (Nord 2003: 184), eta kontuan izanda haien funtzioa irakurleari pertsonaia baten ezaugarri baten (edo batzuen) berri ematea dela, esan gabe doa itzuli beharko direla, izen berezi horien atzean dagoen karga semantikoa xede-hizkuntzara transmititzeko.

Handlerrek erabiltzen dituen antroponimo gehienak fikziozkoak dira, eta pasartean agertzen zaizkigun ia guztiek esanahi berezia dakarte abizenean, hau da, antroponimo deskriptiboak dira. Kasu honetan, hiru adibide ekarri ditugu: Esmé Squalor, Carmelita Spats eta Captain Widdershins.

Esmé Squalor saileko bigarren antagonista nagusia da. Pertsonaia eratzeko, Handler J.D. Salinger idazle estatubatuarren ipuin labur baten izenburuan oinarritu zen, *For Esmé – with Love and Squalor* izenekoa. Izenburu horren Esmé izen berezia eta «squalor» izena lotuz, Handlerrek Esmé Squalor antagonista sortu zuen, eta, modu horretan, nolabaiteko esanahi ezkutua ezarri zuen izen horren atzetik. Izan ere, «squalor»en esanahia «miseria» edo «zikinkeria» da (normalean etxeak izendatzeko erabilitakoa), baina pertsonen ari garenean, izenak beste esanahi bat hartzen du: «zekenkeria» edo «maltzurkeria». Horrela, Handlerrek nolabaiteko hitz jokoa eratu zuen. Izan ere, Esmé Squalor oso emakume aberatsa da, baina bere arima nahiz izaera zekenkeriaz beteta dago: horra hor «squalor»en benetako esanahia (Wikipedia, 2017).

Itzulpenari begira, hitz joko eta esanahi hori euskaraz mantentzea oso garrantzitsua da. Aukerarik errazena Salingerren ipuin laburraren izenburua euskaratzeko «squalor»en itzulpena erabiltzea izango litzateke, baina ipuina ez da sekula euskaratu, eta, hortaz, aukera hori baztertu behar izan da. Alabaina, gainerako itzulpenetan erabilitako estrategiak aztertuz gero, kasu oso bitxia gertatu dela ikus dezakegu. Izan ere, *For Esmé – with Love and Squalor* gaztelaniara, frantsesera, alemanera eta italierara itzuli da, baina bertan erabili diren «squalor»en itzulpenak ez dira erabili Esméren abizena itzultzeko:

	Ipuinaren izenburu ofiziala	Pertsonaiaren izena
Gaztelania	Para Esmé, con amor y <u>sordidez</u>	Esmé <u>Miseria</u>
Frantsesa	Pour Esmé avec amour et <u>abjection</u>	Esmé d'Eschemizerre
Alemana	Für Esmé mit Liebe und <u>Unrat</u> ⁵	Esmé <u>Elend</u>
Italiera	Per Esmé: con amore e <u>squallore</u>	Esmé <u>Squalor</u>

Taula 1: *Squalor* abizenaren itzulpena

Taulak erakusten digu hainbat estrategia erabili direla hizkuntza bakoitzean. Italieraz, adibidez, izena bere horretan mantendu da, eta frantsesezko itzultzaileak asmatutako hitz bat erabili du, hots, «Eschemizerre». Alemanez eta gaztelaniaz, ordea, hitza itzuli da, baina ez da bere benetako esanahia mantendu, hautatu diren hitzak ez baitira Salingerren ipuinaren itzulpenean erabiltzen direnak (izan ere, Handlerren testuaren bi itzultzaileek erabilitako hitzen esanahia «miseria» da). Hortaz, handik ondoriozta dezakegu Fernandes-ek (2006) proposatutako hiru estrategia erabili direla eta erabil ditzakegula «squalor» itzultzeko: «kopia», hau da, hitza bere horretan uztea; «birsortzea», hau da, hitz bat asmatzea jatorrizkoaren antzeko efektu bat lortzeko xedekulturatan; eta «interpretazioa», hots, hitza itzultzea, izenak jatorrizko hizkuntzan duen esanahia xede-hizkuntzara transmititu baitaiteke itzulpen normal baten bidez.

Beraz, eta «interpretazio» strategiari jarraikiz, azken erabakia «squalor» euskaratzea izan da, baina Handlerrek izenean ezarritako benetako esanahia errespetatuz, hots, pertsonaiaren arima eta izaera «zekenkeria»z beteta daudela, gaztelaniazko nahiz alemanezko bertsioetan egin ez den bezala. Modu horretan, Esmé Squalor Esmé Zekenkeria bihurtu da.

Carmelita Spatsi dagokionez, bere abizenak ere esanahi berezia dauka. Izan ere, «spats» hitzak «azpantar» esan nahi du, eta Handlerrek izen hori erabili zuen neskak beti

⁵ 2012. urtean, Salingerren ipuinaren alemanezko beste itzulpen bat argitaratu zen eta izenburua aldatu zitzaion: *Für Esmé – in Liebe und Elend*; Esmé Squalorren abizena alemanez itzultzeko hitz bera erabili zuten, hots, «Elend» («pobrezia», euskaraz).

azpantarrak daramatzala agerian uzteko. Hori dela eta, hemen ere ezin dugu antroponimo hura bere horretan mantendu xede-hizkuntzan, esanahia euskaratu behar baita.

Gainerako hizkuntzetako bertsioei erreparatzen badiegu, estrategia nahiko ezberdinak erabili dira Esmé Squalor itzultzeko estrategiekin alderatuta:

Hizkuntza	Itzulpena
Gaztelania	Carmelita <u>Polainas</u>
Frantsesa	Carmelita <u>Spats</u>
Alemana	Carmelita <u>Späts</u>
Italiera	Carmelita <u>Ghette</u>

Taula 2: *Carmelita Spatsen itzulpenak*

Guztira, Fernandezek (2006) proposatutako hiru estrategia erabili dira: «kopia» (frantsesezko bertsioan), «interpretazioa» (gaztelaniazkoan eta italierazkoan) eta «transkripzio» deritzon estrategia, hau da, jatorrizko hitza xede-hizkuntzaren fonetikara eta morfologiara egokitzea (alemanezko bertsioan). Hortaz, hemen ere Carmelita Spats itzultzeko hainbat aukera dauzkagu.

Gauzak horrela, bi estrategia nahastu ditugu antroponimoa euskaratzeko: alde batetik, «transkripzio»a Carmelita itzultzeko eta, bestetik, «interpretazio»a «spats» itzultzeko. Horrela, Carmelita Spats Karmentxu Azpantar bihurtu da: Carmelita egokitu da euskaraz onartuta dagoen Karmen pertsona-izenarekin, eta «-txu» atzizki txikigarria erabili da «-ita»ren ordeaz.

Bigarrenik, aipatu beharra dago «spats» itzultzeko lehenengo erabakia egokitzapen kultural bat egitea eta «pololo» erabiltzea izan zela, hitz hori «azpantar» baino ezagunagoa baita euskal irakurlearentzat. Hala ere, eta arestian aipatu den legez, autoreak «spats»ekin pertsonaiaren ezaugarri zehatz bat nabarmendu nahi du, hots, beti azpantarrak daramatzala. Gainera, ezin dugu ahaztu sailaren telesaila prestatzen ari direla, eta pertsonaia ikus-entzunezko produktu horretan agertzekotan, ezaugarri hori argi geratuko da. Hori dela-eta, erabaki definitiboa «azpantar» erabiltzea izan da.

Amaitzeko, Captain Widdershins-en kasu berezia dugu. Orain arte aztertu ditugun kasuetan bezala, karga semantiko bitxia dago kapitain horren abizenaren atzean. Izan ere, eta WordReference eta Oxford Dictionaries hiztegien arabera, «widdershins» hitzak «kontrako norabidean» esan nahi du, eta esanahi bera mantentzeko, ingelesezko termino hori itzultzea erabaki dugu, gainerako bertsioetan egin den modu berean (alemanez eta gaztelaniaz izan ezik, terminoa bera germanismoa delako⁶ eta terminoa lehen aldiz erabili zen eleberria ez delako gaztelaniara itzuli, hurrenez hurren):

Hizkuntza	Itzulpena
Frantsesa	Capitaine <u>Virlevant</u>
Alemana	Kapitän <u>Widdershins</u>
Italiera	Capitan <u>Controsenso</u>

Taula 3: *Captain Widdershins*en itzulpenak

Gauzak horrela, Fernandesez (2006) proposatutako eta frantsesez zein italieraz erabili den estrategia berari jarraitu zaio («birsortzea», hain zuzen ere) abizenak duen esanahia euskaraz adierazteko, eta gure erabakia Kontranorabide erabiltzea izan da. Horrela, Captain Widdershins Kontranorabide kapitaina bihurtu da.

4.1.1.2 Toponimoak: *Mortmain Mountains-en kasua*

Antroponimoak bezala, gazte-literaturako toponimoak errealak edo fikziozkoak izan daitezke, bai eta deskriptiboak ere, eta Handlerrek erabiltzen dituen toponimo gehienak fikziozkoak eta deskriptiboak dira. Oro har, toponimoak ez itzultzea hobesten da literatur itzulpenean, bereziki errealak baldin badira eta toponimo erreal horiek xedehizkuntzan itzulita ez badaude, baina leku-izenak fikziozkoak eta batez ere deskriptiboak izatekotan, itzulpena ezinbestekoa da. Kasu honetan, Handlerrek erabilitako toponimo deskriptibo berezi bat ekarri dugu: Mortmain Mountains.

Mortmain Mountains Handlerrek asmatutako mendikate baten izena da. Aurretik aztertutako antroponimoen kasuan ikusi dugun bezala, Mortmain Mountains

⁶ «Widdershins» hitza alemanezko «widersinnig» hitzetik dator («ilogiko», euskaraz); «wider»ek «kontra» esan nahi du, eta «sinnig»ek, aldiz, «zentzudun».

mendikateak esanahi berezia dakar atzetik, «mortmain» terminoa «esku hilen lurra⁷» izendatzeko erabiltzen baita. Terminoak berak «mountain» hitzarekin zerikusirik ez badauka ere, Handlerrek hitz joko fonetiko bat sortzeko erabili zituen bi izenak toponimoa eratzean (ia modu berean ahoskatzen dira), «m» hizkiaren aliterazioaren bitartez. Hori da itzultzaileak nolabait lortu behar duen efektua toponimoa itzultzerako orduan, beste hizkuntzetara egindako itzulpen ofizialetan egin den bezala (gaztelaniaz izan ezik, toponimoa lehen aldiz aipatu zen eleberria ez baita gaztelaniara itzuli).

Hizkuntza	Itzulpena
Frantsesa	<u>M</u> onts <u>M</u> ain <u>m</u> orte
Alemana	Mortmain-Berge
Italiera	<u>M</u> onti di <u>M</u> an <u>m</u> orta

Taula 4: *Mortmain Mountainsen itzulpenak*

Argi dago «mortmain» hitzez hitz itzultzeak ez duela zentzu handirik aurretik aipatutako helburua lortu nahi bada, euskarazko terminoak ez daukalako inolako antz fonetikorik jatorrizko terminoarekin, italieraz eta frantsesez ez bezala. Hala ere, konponbidea alemanezko itzulpenean jarraitu zaion estrategia erabiltzea izan da, hots, «mortmain» bere horretan uztea eta «mountain»en itzulpenarekin lotzea, hau da, «mendi»rekin. Horrela, Mourtain Montains Mortmain Mendiak bihurtu dira, eta «m» hizkiaren aliterazioa mantendu da.

4.1.1.3 Elkartearen izenak: V.F.D.ren kasu berezia

Pasartean agertzen diren V.F.D. sigla misteriotsuek ez diote antroponimo edo toponimo bati erreferentziarik egiten, baizik eta elkarre bati, «Volunteer Fire Department» izenekoari.

Sigla horiek onomastikaren itzulpenaren barruko elementurik konplikatuenak izan dira. Izan ere, V.F.D. bosgarren eleberrian aipatu zen lehen aldiz, baina ez da deskubritzen zer esanahi ezkututzen den sigla horien atzetik hamargarren eleberrira arte. Bitartean, protagonistek beste V.F.D. batzuekin egiten dute topo behin baino gehiagotan, baina

⁷ Esku hilen lurra Antzinako Erregimenean zehar «amortizatuta zeuden lurra ziren; hau da, ezin ziren salerosi eta ordaintzeaz eskualdatu behar ziren» (Aróstegui et al. 2010: 66).

beranduago deskubritzen da sigla horien guztien esanahia ez dagoela benetako elkarteari lotuta. Guztira, lau V.F.D. agertzen zaizkigu: «Village of Fowl Devotees», «Volunteers Fighting Diseases», «Valley of Four Drafts» eta benetako elkarte, «Volunteer Fire Department». Hortaz, siglak itzultzearen zailtasunik handiena lau elkarte horiek guztiei erreferentzia egiteko sigla berberak aurkitzea izan da.

V.F.D. aipatzen den lehenengo eleberrian sigla horien esanahiari buruzko pistarik edo informaziorik ematen ez bada ere, argi dago euskaraz ezin direla hizki berak mantendu, bereziki «v» letra euskaraz oro har erabiltzen ez delako. Horrez gain, siglak gainerako itzulpen ofizialetan ere aldatu dira (gaztelaniaz izan ezik), taula honek erakusten digunez:

Hizkuntza	Itzulpena
Gaztelania	V.F.D. ⁸
Frantsesa	V.D.C.
Alemana	F.F.
Italiera	V.F.

Taula 5: V.F.D.ren itzulpenak

Hortaz, siglak osatzeko hizkiak aldatu beharko dira lau V.F.D. horiek euskaratzeko, eta aurkitutako konponbidea S.A.B. izan da:

Jatorrizkoa	Itzulpena
Volunteer Fire Department	Suteen Aurkako Boluntarioak (S.A.B.)
Village of Fowl Devotees	Sai Amorratuen Bizilekua (S.A.B.)
Volunteer Fighting Diseases	Samintasunen Aurkako Boluntarioak (S.A.B.)

⁸ Gaztelaniarako itzulpenaren kasuan, kontuan hartu behar dugu ez direla sailaren V.F.D. guztiak itzuli (gogora dezagun bildumaren lehenengo zortzi liburuak soilik itzuli direla gaztelaniara), baina itzuli diren liburuen V.F.D.ak itzultzeko, jatorrizko sigla berberak erabili zituen itzultzaileak.

Valley of Four Drafts	Sendotutako Arbolak Bailara (S.A.B.)
-----------------------	--------------------------------------

Taula 6: *V.F.D.ren euskararako itzulpenak*

S.A.B. siglekin jatorrizkoaren lau V.F.D.ak itzultzeaz gain, haien esanahia gutxi gorabehera mantentzea lortu da, batez ere «Volunteer Fire Department» eta «Volunteers Fighting Diseases» elkarteen kasuan.

Valley of Four Draftsen kasuan, arazo gehiago izan ditugu. Izan ere, jatorrizkoak «lau haize-lasterren harana» dio hitzez hitz, baina itzulpenean, lau haize-lasterak «sendotutako arbolak» bihurtu dira S.A.B. osatu ahal izateko. Hortaz, ez da esanahi bera mantendu, eta egindako hautaketa lexikoak behartzen gaitu «sendotutako arbolak» beti erabiltzera «lau haize-laster»en ordeztan (López Gaseni 1995). Horrez gain, «bailara» sinonimoa erabili da «valley» itzultzeko.

4.1.2 Erreferentzia kulturalen itzulpena

Erreferentzia kulturalak literatur itzulpenean sarritan aurki daitezkeen beste elementu batzuk dira, eta esan gabe doa erreferentzia horiek itzultzea (edo, hobe esanda, egokitzea) inperatiboa eta aldi berean zaila dela. Izan ere, «kultura jakin bateko termino bereziren bat itzultzean, batzuetan ezinezkoa da xede hizkuntzan hitz egokirik aurkitzea, eta bestelako irtenbideak bilatu behar izaten dira: mailegua, kalkoa, azalpena, parafrasia...» (Cillero 1996: 26).

Orokorrean, Handlerrek kultur erreferentzia ugari erabiltzen ditu eleberrietan, eta pasarte honetan, bi kultur hitzen itzulpenei aurre egin behar izan diegu: «preparatory school»i eta «scout»i.

4.1.2.1 Prufrock Preparatory School

Prufrock Preparatory School bosgarren eleberrian lehen aldiz agertu zen institutu baten izena da, eta autoreak berriro aipatu zuen toponimo hura guk aukeratutako pasarteetan.

Toponimo hori itzultzeak dakarren arazoa da «preparatory school» erreferentzia kulturala dela. Izan ere, terminoak bi esanahi izan ditzake: Erresuma Batuan, lehen hezkuntzako eskola pribatua da, eta Estatu Batuetan, bigarren hezkuntzako ikastetxe pribatua. Autorea estatubatuarra denez, pentsa dezakegu kultur hitzak institutu pribatu bati egiten diola erreferentzia, baina bi xehetasun hartu behar ditugu kontuan: alde

batetik, protagonistak oso gazteak direla, eta baliteke bigarren mailako institutu batean ikasteko behar bezain heldu ez izatea; bestetik, eleberrietan ez da sekula zehazten non garatzen diren gertakariak, eta, hortaz, ezin esan daiteke ziurtasun osoz istorioa Erresuma Batuan, Estatu Batuetan edo beste herrialde anglosaxoi batean garatzen den.

Hortaz, gainerako hizkuntzetarako itzulpenetan hartutako erabakiak aztertu ditugu lagungarri gisa:

Hizkuntza	Itzulpena
Gaztelania	<u>Academia Preparatoria Prufrock</u>
Frantsesa	<u>Institut J. Alfred Prufrock</u>
Alemana	Prufrock <u>Privatschule</u>
Italiera	Prufrock <u>Preparatory School</u>

Taula 7: Prufrock Preparatory Schoolen itzulpenak

Taulan estrategia oso ezberdinak erabili direla ikus dezakegu. Hasteko, terminoa ez da italiar kulturara egokitu, bere horretan mantendu baita itzulpenean; gaztelaniaz nolabaiteko itzulpen literal bat egin da eta «school» hitza «academia» bihurtu da, baina «academia» oso anbigua da, ikastetxe pribatu nahiz publiko bati egin baitiezaioke erreferentzia. Gainera, ez du zehazten zein den akademia batean ikasten duten ikasleen adina. Gauza bera gertatu da alemanaren kasuan, itzultzaileak «Privatschule» erabili baitu («eskola pribatua»), eta terminoak ere lehen nahiz bigarren hezkuntzako eskola bati egiten die erreferentzia. Ondorioz, italierarako, gaztelaniarako eta alemanerako itzulpenak ez zaizkigu oso baliagarri suertatu.

Alabaina, «institut» erabili da frantseseko itzulpenean, hau da, «institutua», edo bigarren hezkuntzako ikastetxea. Adibide hori oinarritzat hartuz, gure azken erabakia «institutu» erabiltzea izan da, frantseseko bertsioan egin den moduan. Gainera, protagonista helduenen adin zehatzak aintzat hartu dira erabaki hura hartzeko; izan ere, Violetek hamalau urte ditu, eta kontuan izanik Erresuma Batuko «preparatory school»etan sei eta hamahiru urte bitarteko umeek ikasten dutela, ezinezkoa da Violetek lehen hezkuntzako eskola batean ikastea. Horrez gain, Klausek hamabi urte ditu (normalean hamaika urtetik aurrera hasten dira umeak institutu batean ikasten), eta

hamahiru urte betetzeko zorian dago bosgarren eleberrian. Beraz, Prufrock Preparatory School toponimoa Prufrock Institutu Pribatua bihurtu da.

4.1.2.2 *Snow Scouts*

Pasartean aipatutako «Snow Scout» terminoa «boy scout»ekin hitz jokoa egiteko erabili da, eta, horrela, eremu elurtsuetan esploratzen dabilen ume-talde bati erreferentzia egiten zaio.

Bi dira «Snow Scout» itzultzeak dakartzan arazoak: alde batetik, kultur erreferentzia dela, Ameriketako gazteen elkarte bati egiten baitio erreferentzia; bestetik, hitz jokoa bera, «boy scouts» terminoak daukan esanahi berbera mantentzen baita, baina beste testuinguru batean, hots, eremu elurtsuetan, eta ez zonalde menditsuetan. Hala ere, «scout» terminoa bera nahiko hedatuta dago kultura unibertsalean, eta, printzipioz, ez da beharrezkoa hitza euskal hizkuntzara egokitzea, ezaguna baita. Gainera, errazagoa izango litzateke hitz jokoa mantentzea «snow» hitza «elur»ekin ordezkatzuz eta «scout»ekin lotuz. Erabaki bat hartzen laguntzeko, italierara, alemanera eta frantsesera egindako itzulpenetan erabilitako estrategiak aztertu ditugu (gaztelaniaz izan ezik, terminoa lehen aldiz aipatu zen eleberria ez baita gaztelaniara itzuli):

Hizkuntza	Itzulpena
Frantsesa	<u>Scouts</u> des neiges
Alemana	Schneepfadfinder
Italiera	<u>Scout</u> delle nevi

Taula 8: *Snow Scoutsen itzulpenak*

Alemanez izan ezik, «scout» frantsesez eta italieraz mantendu dela ikus dezakegu, nahiz eta anglizismoa onartuta ez egon bi hizkuntza horietan. Gauzak horrela, eta kontuan hartuta hitz jokoa mantendu behar dugula eta «boy scout» terminoa nahiko ezaguna dela, gure erabakia anglizismoa euskaraz mantentzea izan da, betiere «elur»ekin hitz jokoa eginez, jatorrizkoan bezala. Horrela, «Snow Scout» terminoa «Elur Scout» bihurtu da.

4.1.3 Hitz joko fonetikoaren itzulpena: interjekzioen egokitzapena

Interjekzioak gazte-literaturan sarritan erabiltzen diren beste elementu lexiko bat dira, bereziki autoreak pertsonaien barreak, hasperenak eta horrelako ezaugarriak adierazi nahi dizkigunean.

Pasarte honetan, interjekzio nahiko bereziak erabiltzen dira Olaf Kondearen eta Esméren barreak adierazteko. Izan ere, pertsonaiek barreari lotutako interjekzio batzuk («tee hee», «ho ho»...) lotzen dituzte aurretik erabilitako hitzekin errima osatzen duten edo hizki berak dauzkaten hitz batzuekin, nolabaiteko aliterazio bat osatzeko; horrela, hitz joko fonetiko oso bitxia sortzen dute, adibide hauetan ikus dezakegunez: «ho ho sniggle», «hee hee snaggic», edo «tee hee tempeh», «ha ha hedgehog»...

Hitz joko fonetiko hori euskaraz ere mantentzeko eman zaio lehentasuna. Hori egiteko, euskaraz barrea adierazteko «kar-kar» interjekzioaz baliatu gara, baina jatorrizko bertsioan interjekzio bat baino gehiago erabiltzen denez (interjekzio horiek guztiek barre egiteko hainbat era islatzen dituzte, adibidez, barre-algarak edo irritxoak) eta euskaraz barrea adierazteko interjekzio bakarra dagoenez, «kar-kar» interjekzioaren bokalak aldatzea eta txandakatea erabaki dugu. Ondoren, interjekzioaren amaierako silabarekin errima osatzen duen hitz bat aukeratu dugu jatorrizkoaren efektu bera lortzeko, edo hizki berak dituen hitz bat erabili dugu aliterazioa osatzeko, adibidez: «kar-kar azkar», «kor-kor bizkor», «kir-kur kizkur», etab.

4.1.4 Bi kasu berezi: «how in» eta «cakesniffer»en itzulpenak

Atal labur honetan, pasartean erabilitako bi hitzen itzulpen-prozesu bitxiaz arituko gara: «how in» esaerarena eta «cakesniffer» irainarena.

«In» eta «out» hitzak Esmé Squalorrek zerbait modan dagoela edo ez dagoela adierazteko erabiltzen dituen hitz bereziak dira. Literalismoetatik ihes egiteko xedearekin, lehen aukera «moderno» erabiltzea izan zen «how in» itzultzeko («hori bai modernoa!»), baina kontuan hartu behar dugu Esmék esapide hori sail osoan zehar erabiltzen duela (hau da, ez da unean uneko adierazpide bat), eta, gainera, «in» eta «out» hitzak gainerako bertsioetan bere horretan mantendu dira (gaztelaniaz izan ezik, bertan «se lleva» eta «no se lleva» esaldiak erabili baitziren). Hori dela eta, «in» bere horretan mantendu da itzulpenean, eta «how in» esaera «hori bai *in*» bihurtu da itzulpenean.

Gauza bera gertatu da Carmelita Spatsek pertsona guztiak iraintzeko etengabe erabiltzen duen «cakesniffer»ekin. Izan ere, lehendabiziko aukera irain normal bat erabiltzea izan zen («ergel», «burugabe», edo horrelako irainen bat), baina pertsonaiak sail osoan zehar erabiltzen du irain hura, eta, gainera, liburu batean hitz joko bat egiten du «saladsniffer» erabiliz «cakesniffer»en ordeiz. Horrexegatik, eta zentzu bera mantentzeko, itzulpen literala egin da eta «opil-jale» erabili da.

4.2 MORFOSINTAXIA

4.2.1 Sintaxi korapilatsuaren itzulpena

Pasartean erabilitako sintaxia euskaratzea prozesu nahiko konplikatua izan da bi arrazoi direla eta: batetik, ingelesez erabilitako sintaxiak, oro har, euskal sintaxitik nahiko ezberdinak diren edo normalean saihesten diren ezaugarri batzuk biltzen dituelako, besteak beste, esaldi nahiko luzeak eta nominalizazioaren zein mendeko perpausen ugaritasuna (bereziki erlatibozko formak); bestetik, Handlerrek *A Series of Unfortunate Events* sailean erabiltzen duen sintaxia oso konplexua delako, esaldi batzuk oso luzeak baitira eta perpaus mota asko (mendeko perpausak, perpaus koordinatuak...) nahasten dituelako.

Bi ezaugarri horiek kontuan hartuta, eta irakurleen mesederako, jatorrizkoaren sintaxia moldatzea erabaki da, betiere autoreak adierazten dituen ideia nahiz esanahi nagusiak aldatu gabe.

Helburu hori lortzeko, hainbat estrategia erabili ditugu, besteak beste, esaldien izugarrizko luzera murriztea esaldi luze bat bi esalditan banatuz:

Jatorrizkoa	Itzulpena
[...] in different shades of pink so blinding that Violet and Klaus had to squint in order to look at her.	[...] hainbat arrosa-eskualdi <u>zituena</u> . Hain <u>ziren distiratsuak</u> arrosa-eskualdi horiek, ezen Violetek eta Klausek begiak ia guztiz itxi behar baitzituzten Karmentxu ikusi ahal izateko.
Olaf dragged them down another hallway [...] and finally stopped in front of a small	Olafek [...] beste pasillo batetik eraman zituen umeak [...]. Azkenean, [...] ate

door [...].	txiki batera ailegatu ziren [...].
-------------	------------------------------------

Taula 9: *Murrizketen adibidea*

Horrez gain, aipatu beharra dago jatorrizkoan erabiltzen diren perpaus motak mantendu direla orokorrean, eta, hortaz, jatorrizkoaren mendeko perpaus gehienak mendeko bihurtu dira itzulpenean, eta gauza bera gertatu da perpaus koordinatuekin. Hala ere, arestian esan bezala, erlatibozko mendeko perpausak ugari dira pasartean, eta egitura sintaktiko horiek kalkatzeak eragin nahiko negatiboa izan lezake ulergarritasunean. Gauzak horrela, jatorrizkoaren erlatibozko perpaus batzuk koordinatu bihurtu ditugu:

Jatorrizkoa	Itzulpena
There was nothing in it but a small stool, <u>at which</u> a man sat, shuffling a deck of cards with quite a bit of difficulty.	Ez zegoen ezer barruan, bakarrik aulkitxo bat, <u>eta</u> bertan gizon bat zegoen jesarrita, zailtasunez karta batzuk nahasten zebilena.
[...] a phrase <u>which</u> here means “who had probably been kidnapped by Count Olaf or his associates on another occasion.”	[...] <u>eta</u> adierazpide horrek esan nahi du Olaf Kondeak edo bere laguntzaileek ziurrenik beste momenturen batean bahitutako umeak zirela.

Taula 10: *Erlatibozko perpausen ezabaketaren adibidea*

Bukatzeko, eta kontuan izanda nominalizazioaren presentzia nahiko ugaria dela, transposizioa deritzon estrategiaz baliatu gara nominalizazio hori ekiditeko, hau da, jatorrizko hitzaren kategoria gramatikala aldatu dugu (normalean aditz bihurtu dira izen gehienak):

Jatorrizkoa	Itzulpena
We already celebrated <u>their deaths</u> !	<u>Hilda zeudela</u> ospatu dugu jada!
[...] so my associate can force them to reveal <u>the location</u> of the sugar bowl.	[...] ea nire laguntzaileak azukre-ontzia <u>non dagoen</u> esatera behartzen dituen.

Taula 11: *Nominalizazioen ezabaketaren adibidea*

4.2.2 Esaldien naturaltasuna

Itzulpen-lan honen xederik nagusiena itzulpen naturala egitea izan da, eta, horretarako, jatorrizko testuan ageri diren elementu gehienak euskarara eta euskal irakurleen ezaugarrietara egokitu ditugu.

Egokitzapen-prozesu hori gauzatzeko, hitzez hitzeko itzulpena baztertu dugu lanean, aurretik azaldu denez, eta, hortaz, jatorrizkoan agertzen diren elkarrizketetako hainbat esaldi, adierazpen edo hitz moldatu, ezabatu edo gehitu dira itzulpenean zehar. Ikus ditzagun adibide batzuk:

Jatorrizkoa	Itzulpena
<u>How can that be?</u>	<u>Baina hori ezinezkoa da!</u>
You look adorable, darling, (...). <u>Doesn't she look adorable</u> , Olaf?	Liluragarria da, laztana (...), <u>ezta</u> , Olaf?
<u>Oh</u> , I wouldn't say that (...).	<u>A bai?</u> <u>Ba</u> nik ezetz esango nuke.
Several of the children <u>groaned at their oars</u> .	<u>Euren arraunetatik begirada aldendu gabe</u> , hainbat ume arranguratzen hasi ziren.

Taula 12: Esaldien egokitzapenen adibidea

Adibide horiek guztiek erakusten digute ez zaiola formari garrantzi handirik eman euskarazko esaldien naturaltasuna bilatzeko, baina kontuan hartu behar dugu esanahia eta edukia guztiz errespetatu direla moldaketa horiek egitean.

5. ONDORIOAK

The Grim Grottoen pasartea itzultzeak eta itzulpen-prozesua xehe-xehe aztertzeak lan osoan zehar adierazitako baieztapen ukaezin bat sendotzen du: literatura itzultzea ez da, inondik inora, umeen jolasa, bereziki Daniel Handler bezalako autore bikain baten lana itzuli behar denean.

Lan honetatik atera den ondorio nagusia da Handlerren saila itzultzea benetako erronka dela, eta estrategia egokiak aukeratu eta erabili behar direla lanean aztertutako alderdi linguistikoak xede-hizkuntzan mantentzeko. Kontuan izanda alderdi horiek hizkuntza batetik bestera aldatzen direla, literatur itzultzaileak lehen momentutik jakin behar du hitzez hitzeko itzulpena baztertu behar dela, bai eta «itzulpen» eta «egokitzapen» izeneko prozesuak sinonimoak direla ere; beste hitzetan, eta lanean zehar baieztatu den legez, itzultzailea egokitzapen-prozesu batean murgildu beharko da itzulpena egitean, eta jatorrizkoa nolabait berridatzi beharko du aurretik aipatu alderdi linguistiko guztiak xede-kulturara eta irakurlearen ezaugarrietara egokitzeko.

Horri lotuta, lan honek erakutsi digu sail bat osatzen duten liburu guztiak irakurtzea komeni dela (behintzat posiblea bada, kontuan izanda liburu guztiak agian ez direla oraindik argitaratu edota itzulpena entregatzeko epe bat dagoela) eta dokumentazio-lan batean murgildu beharko garela itzulpenarekin hasi baino lehen, V.F.D. eta horrelako elementuak era egokian itzuli ahal izateko.

Bukatzeko, itzulpen-prozesuan zehar erabilitako estrategiek erakutsi digute aurretik aipatu alderdiak egokitzeko saiakera egin dugula lan honetan zehar, eta, hortaz, espero dugu lan honen ardatza izandako *The Grim Grottoen* pasartearen itzulpena literatur itzulpen egokia eta efizientea izatea.

6. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

ADOREZ HIZTEGIAK, BOSTAK BAT KULTUR ELKARTEA (2013an eguneratua):

5000 Adorez Hiztegia. Azken kontsulta-eguna: 2017ko apirilaren 13an,
<<http://www.bostakbat.org/azkue/>>.

ÁLVAREZ, Maria Antonia (1995): Diferentes modelos de traducción. *Estudios de traducción (inglés – español). Teoría. Práctica. Aplicaciones*. 2. edizioa. Madril: Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionala, 121-157.

ARÓSTEGUI J., GARCÍA M., GATELL C., *et al* (2010): Antzinako Erregimeneko gizartea eta ekonomia. *Historia*. Errioxa: Vicens Vives, 66-67.

CILLERO, Javi (1996): Kultur hitzen itzulpena literatura testuetan. *Senez*. 18:25-54.

Dictionary.com. Azken kontsulta-eguna: 2017ko apirilaren 13an,
<<http://www.dictionary.com/>>.

Encyclopedia of World Biography – Lemony (Daniel Handler) Snicket Biography (2017an eguneratua): Azken kontsulta-eguna 2017ko apirilaren 7an,
<<http://www.notablebiographies.com/news/Sh-Z/Snicket-Lemony-Daniel-Handler.html>>.

EUSKALTZAINDIA (2016ko urriaren 6an eguneratua): *Euskaltzaindiaren hiztegia*. Azken kontsulta-eguna: 2017ko apirilaren 13an,
<http://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_hiztegiabilatu&view=frontpage&Itemid=410&lang=eu>.

EUSKO JAURLARITZA (2005eko apirilaren 20an eguneratua): *Morris Student Plus*. Azken kontsulta-eguna: 2017ko apirilaren 13an,
<<http://www1.euskadi.net/morris/>>.

EUSKO JAURLARITZA: *Elhuyar hiztegia*. Azken kontsulta-eguna: 2017ko apirilaren 13an, <https://hiztegiak.elhuyar.eus/eu_en>.

FERNANDES, Lincoln (2006): Translations of Names in Children’s Fantasy Literature: Bringing the Young Reader into Play. *New Voices in Translation Studies*. 2:44-57.

- HANDLER, Daniel (1999): Chapter one. *A Series of Unfortunate Events, No. 1 – The Bad Beginning*. New York: HarperCollins Children’s Books, 1-10.
- HANDLER, Daniel (2002): *L’atroce accademia* (Valentina DANIELEk itzulia). Milan: Salani Editore.
- HANDLER, Daniel (2003): *Una academia muy austera* (Verónica CANALESek itzulia). Bartzelona: Random House Mondadori, S.L.
- HANDLER, Daniel (2004): Chapter nine. *A Series of Unfortunate Events, No. 11 – The Grim Grotto*. New York: HarperCollins Children’s Books, 201-211.
- HANDLER, Daniel (2005): *Die Schule des Schreckens* (Klaus WEIMANNek itzulia). Munich: Manhattan argitaletxea.
- HANDLER, Daniel (2006): *Die grimmige Grotte* (Klaus WEIMANNek itzulia). Munich: Manhattan argitaletxea.
- HANDLER, Daniel (2006): *L’atro antro* (Valentina DANIELEk itzulia). Milan: Salani Editore.
- HANDLER, Daniel (2009): *Piège au collègue*. (Rose-Marie VASALLOk itzulia). Paris: Éditions Nathan.
- HANDLER, Daniel (2010): *La Grotte Gorgone*. (Rose-Marie VASALLOk itzulia). Paris: Éditions Nathan.
- LÓPEZ GASENI, Manu (1995): "Aliceren Abenturak Lurralde Miresgarrian" liburuaren itzulpena dela eta, ohar batzu. *Senex*. 10(3):69-78.
- NORD, Christiane (2003): Proper Names in Translations for Children: *Alice in Wonderland* as a Case in Point. *Meta XLVIII*. 1-2:182-196.
- OXFORD UNIVERSITY PRESS (2017an eguneratua): *Oxford Dictionaries*. Azken kontsulta-eguna: 2017ko apirilaren 13an, <<https://www.oxforddictionaries.com/>>.
- PETRIRENA, Patxi (2011): *Morfosintaxiaren inguruko zalantzak eta argibideak*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

- PIRES DOS BARROS, Grisel (2006): Los libros de Lemony Snicket, una serie de catastróficas desdichas. *Imaginaria: revista quincenal sobre literatura infantil y juvenil*. 194. Azken kontsulta-eguna: 2017ko maiatzaren 29an, <<http://www.imaginaria.com.ar/19/4/snicket.htm>>.
- SARASOLA, Ibon, SALABURU, Pello & LANDA, Josu (2016ko maiatzaren 6an eguneratua): *Eguno testuen corpora*. Azken kontsulta-eguna: 2017ko apirilaren 13an, <<http://www.ehu.eus/etc/>>.
- SARASOLA, Ibon: *Zehazki gaztelania-euskara hiztegia*. Azken kontsulta-eguna: 2017ko apirilaren 13an, <<http://www.ehu.eus/ehg/zehazki/>>.
- Wikipedia, the free encyclopedia* (2017ko apirilaren 13an eguneratua): Azken kontsulta-eguna 2017ko apirilaren 13an, <<https://es.wikipedia.org/wiki/Wikipedia:Portada>>.
- WordReference*. Azken kontsulta-eguna: 2017ko apirilaren 13an, <<http://www.wordreference.com/es/>>.
- ZUBIMENDI, Joxe Ramon (2004): *Ortotipografia*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

7. ERANSKINA: JATORRIZKO TESTUA

A Series of Unfortunate Events

No. 11 – The Grim Grotto

Chapter nine (201 – 211 orr.)

[...]

Gesturing with his sword, he led the children around a corner into an enormous room—the room they'd had a glimpse of as the *Queequeg* tumbled inside this terrible place. It was quite dark, with only a few lanterns hanging from the tops of tall pillars scattered around the room, but Violet and Klaus could see two large rows of uncomfortable-looking wooden benches, on which sat a crowd of children, hurriedly working long oars that stretched across the room and even beyond the walls, where they slid through metal holes in order to control the tentacles of the octopus. The elder Baudelaires recognized some of the children from a troop of Snow Scouts they had encountered in the Mortmain Mountains, and a few looked quite a bit like other students at Prufrock Preparatory School, where the siblings had first encountered Carmelita Spats, but some of the others were children with whom the Baudelaires had had no prior experience, a phrase which here means “who had probably been kidnapped by Count Olaf or his associates on another occasion.” The children looked very weary, quite hungry, and more than a little bored as they worked the metal oars back and forth. In the very center of the room appeared to be another octopus—this one made of slippery cloth. Six of the octopus's arms hung limply at its sides, but two of them were waving high in the air, one of them clutching what looked like a long, damp noodle.

“Row faster, you stupid brats!” the octopus cried in a familiar, wicked voice. “We have to get back to the hotel Denouement before Thursday, and it's Monday already! If you don't hurry up I'm going to hit you with this tagliatelle grande! I warn you, being struck with a large piece of pasta is an unpleasant and somewhat sticky experience! Ho ho sniggle!”

“Hee hee snaggle!” Olaf cried in agreement, and the octopus whirled around.

“Darling!” it cried, and the siblings were not surprised to see that it was Esmé Squalor, Count Olaf's treacherous girlfriend, in another one of her absurd, stylish outfits. Using the slippery cloth of the submarine's uniforms, the villainous girlfriend had fashioned an octopus dress, with two large plastic eyes, six extra sleeves, and suction cups stuck all over her boots, just as real octopi have on their tentacles to help them move around. Esmé took a few sticky steps toward Olaf and then peered at the children beneath the slippery hood of the dress. “Are these the *Baudelaires*?” she asked in astonishment. “How can that be? We already celebrated their deaths!”

“It turns out they survived,” Count Olaf said, “but their good luck is about to come to an end. I'm taking them to the brig!”

“The baby certainly has grown,” Esmé said, peering at Fiona. “But she's just as ugly as she ever was.”

“No, no,” Olaf said. “The baby's locked up in that helmet, coughing her little lungs out. This is Fiona, Captain Widdershin's stepdaughter. The captain abandoned her!”

“Abandoned her?” Esmé repeated. “How in! How stylish! How marvelous! This calls for more of our new laughter! Ha ha hedgehog!”

“Tee hee tempeh!” Olaf cackled. “Life keeps getting better and better!”

“Sniggle ho ho!” Esmé shrieked. “Our triumph is just around the corner!”

“Ha ha hepplewhite!” Olaf crowed. “V.F.D. will be reduced to ashes forever!”

“Giggle giggle glandular problems!” Esmé cried. “We are going to be painfully wealthy!”

“Heepa deepa ho ho ha!” Olaf shouted. “The world will always remember the name of this wonderful submarine!”

“What is the name of this submarine?” Fiona asked, and to the children's relief the villains stopped their irritating laughter. Olaf glared at the mycologist and then looked at the ground.

“The *Carmelita*” he admitted quietly. “I wanted to call it the *Olaf*, but somebody made me change it.”

“The *Olaf* is a cakesniffing name!” cried a rude voice the siblings had hoped never to hear again, and I'm sorry to say that Carmelita Spats skipped into the room, sneering at the Baudelaires as she did so. Carmelita had always been the sort of unpleasant person who believed that she was prettier and smarter than everybody else, and Violet and Klaus saw instantly that she had become even more spoiled under the care of Olaf and Esmé. She was dressed in an outfit perhaps even more absurd than Esmé Squalor's, in different shades of pink so blinding that Violet and Klaus had to squint in order to look at her. Around her waist was a wide, frilly tutu, which is a skirt used during ballet performances, and on her head was an enormous pink crown decorated with light pink ribbons and dark pink flowers. She had two pink wings taped to her back, two pink hearts drawn on her cheeks, and two different pink shoes on each foot that made unpleasant slapping sounds as she walked. Around her neck was a stethoscope, such as doctors use, with pink puffballs pasted all over it, and in one hand she had a long pink wand with a bright pink star at the end of it.

“Stop looking at my outfit!” she commanded the Baudelaires scornfully. “You're just jealous of me because I'm a tap-dancing ballerina fairy princess veterinarian!”

“You look adorable, darling,” purred Esmé, patting her on the crown. “Doesn't she look adorable, Olaf?”

“I suppose so,” Count Olaf muttered. “I wish you would ask me before taking disguises from my trunk.”

“But Countie, I needed your disguises,” Carmelita whined, batting her eyelashes, which were covered in pink glitter. “I needed a special outfit for my special tap-dancing ballerina fairy princess veterinarian dance recital!”

Several of the children groaned at their oars. “Please, no!” cried one of the Snow Scouts. “Her dance recitals last for hours!”

“Have mercy on us!” cried another child.

“Carmelita Spats is the most talented dancer in the entire universe!” Esmé growled, snapping the noodle over the rower's heads. “You brats should be grateful that she is performing for you! It'll help you row!”

“Ugh,” Sunny could not help saying from inside her helmet, as if the idea of Carmelita's dance recital were making her even sicker. The elder Baudelaires looked at one another and tried to imagine how they could help their young sibling. “I think we have a pink cape aboard the *Queequeg*,” Klaus said hurriedly. “It would look perfect on Carmelita. I'll just run back to the submarine, and—”

“I don't want your old clothes, you cakesniffer!” Carmelita said scornfully. “A tap-dancing ballerina fairy princess veterinarian doesn't wear hand-me-downs!”

“Isn't she precious” Esmé cooed. “She's like the adopted child I never had—except for you Baudelaires, of course. But I never liked you much.”

“Are you going to stay and watch me, Countie?” Carmelita asked. “This is going to be the most special dance recital in the whole wide world!”

“There's too much work to do,” Count Olaf said hastily. “I have to throw these children in the brig, so my associate can force them to reveal the location of the sugar bowl.”

“You like that sugar bowl more than me,” Carmelita pouted.

“Of course we don't, darling,” Esmé said. “Olaf, tell her that sugar bowl doesn't mean a thing to you! Tell her she's like a wonderful marshmallow in the middle of our lives!”

“You're a marshmallow, Carmelita,” Olaf said, and pushed the children out of the enormous room. “I'll see you later.”

“Tell Hooky to be extra vicious with those brats!” Esmé cried, whipping the tagliatelle grande over her fake octopus head. “And now, on with the show!”

Count Olaf ushered the children out of the room as Carmelita Spats began tapping and twirling in front of the rowers. The elder Baudelaires were almost grateful to go to the brig, rather than being forced to watch a tap-dancing ballerina fairy princess

veterinarian dance recital. Olaf dragged them down another hallway that twisted every which way, curving to the right and to the left as if it were a snake the mechanical octopus had eaten, and finally stopped in front of a small door, with a metal eye where the doorknob ought to have been.

“This is the brig!” Count Olaf cried. “Ha ha haberdashery!”

Sunny coughed once more from inside her helmet—a rough, loud cough that sounded worse than before. The Medusoid Micelium was clearly continuing its ghastly growth, and Violet tried one more time to convince the villain to let them help her. “Please let us go back to the Queequeg,” she said. “Can't you hear her coughing?”

“Yes,” Count Olaf said, “but I don't care.”

“*Please!*” Klaus cried. “This is a matter of life and death!”

“It certainly is,” Olaf sneered, turning the knob. “My associate will make you reveal the location of the sugar bowl if he has to tear you apart to do it!”

“Listen to my friends!” Fiona said. “Aye! We're in a terrible situation!”

“Oh, I wouldn't say that,” Count Olaf said, with a wicked smile, as the door creaked open to reveal a small, bare room. There was nothing in it but a small stool, at which a man sat, shuffling a deck of cards with quite a bit of difficulty. “How can a family reunion be a terrible situation?” Olaf said, and shoved the children inside the room, slamming the door behind them.

Violet and Klaus faced Olaf's associate, and turned the diving helmet so Sunny could face him, too. The siblings were not surprised, of course, that the person shuffling the cards was the hook-handed man, and they were not at all happy to see him, and they were quite scared that their time in the brig would make it impossible to save Sunny from the mushrooms growing inside her helmet. But when they looked at Fiona, they saw that the mycologist was quite surprised at who she saw in the brig, and quite happy to see the man who stood up from his stool and waved his hooks in amazement.

“Fiona!” the hook-handed man cried.

“Fernald!” Fiona said, and it seemed they just might save Sunny after all.

[...]